

Iraganeko leloak orainean

Udazkeneko sua, AfD alderdia bostetik batek bozkatu duen herri batean. Batasunarekin zerbait galdu zuen Alemaniako ekialdeak. *Lo-sing my religion* entzuten da. Hiru lagun kantua leloa baino gehiago abesten hasi gara. Seme-alabak begira jarri zaizkigu jakinguraz, hunkituta, deseroso. Auzo-lotsa ere ote zegoen beren begiraden koktelean? Seguruenez. Seme-alaben adina ez da nahikoa kantua nora eramane gaituen jakiteko: 12-15 urte genitueneko nerabezarora eta orduko sentipenetara. Nora eza, barne eta kanpoko gerrak, bakardade eta ametsak, erantzunik gabeko maitasunak eta entzungor egiten duen ingurua. Musika-txinparta batek piztu digu iraganeko su baten oroitzapena, bakoitzari berea. Batzuei Led Zeppelin edo Iggy Pop entzuten gertatuko zaie, besteei Hertzainak edo Neguren arrakastekin.

No pasarán entzun omen zen Bartzelonan, poliziari zuzenduta. 80 urteko tartea bere burua defendatzen zuen Errepublikaren eta deklaratu izan nahi duenaren artean. Frankismoa amaitzeko ote dagoen. Zilegi al den Gerra Zibila gogora ekartzea, zilegi al den iraganaz halako erabilera egitea. Batzuek ezetz diote, irmoki. Nazismoa ere amaitu zen, eta Alemanian naziekin konparaketak egiten diren oro, ez egiteko eskatzen da, arren, ez konparatzeko.

Batzuetan musika bat entzuten dugu, eta buruak loturak egiten ditu. Batzuetan iraganeko gatazka batek, borroka batek, txinparta batek bezala salto egiten digu begien aurrera. Eta akaso, etorkizun posible baten irudia argitzen du. Antza, Europak irudi berri bat behar du.

Atzera eta aurrera, epe luzera begira jartzen gaitu Kataluniak. Espainian sortu duen krisia ezin da banatu Europar Batasunak bizi duen krisi egoeratik. Herrien Europa desio dutenek esperan-



Irati Elorrieta

IDAZLEA



Antton Olariaga

tzaz begiratzen diote Kataluniari, estatu nazionalen European agintzen dutenek, aldiz, kezka.

Ez da mugimendu fokalizatu batek European larritasuna sortzen duen lehen aldia. Denbora-jauzi handia egingo dut, 1871. urtera, alegia: Europak, beste arrazoi batzuegatik, beldurra izan zion Parisko Komunari. *Vive la Commune!* aldarrikatu zutenek ere, *commune* hitza iraganeko musiketarik erreskatatu zuten, *citoyenne* hitzarekin batera, Frantziako iraultzaaren garaia aipamen zuzena eginez. Autonomia lokalaren eskakizun horretan, denek ez zuten gauza bera ulertzen: deszentralizazioa, autogestioa, federalismoa... Eskala internazionalen proiektatzen zuten beren iraultza, eta Europako prentsak satanizatu egin zituen. Alemaniaren laguntzaz, egun gutxitan zapaldu ahal izan zuen Frantziak Parisko Komuna.

Nazioarteko prentsan ez dute Katalunia guztiz txarto tratatu. Alemaniakoan ordea, oro har, testuinguru gutxiegi eskainiz eman dute hango gertaeren berri. *No pasarán* leloaren berrerabilera *fartsa* gisa kalifikatzen zuen kazetariren batek, eta katalanek Gerra Zibilaren erabilera oldarkorra egiten dutela salatzen zuen. Baina nortzuk dira *farsanteak*? Marxen esaldi ezagunenetakoa izango dena datorrit gogora. Eta dio, Hegelen tesi bat osatuz, historia bi aldiz errepikatzen dela: lehenengo tragedia gisa, eta bigarrenaz, *fartsa* gisa. Tragediaren sortzaileak izan zirenak bigarren bueltan *farsanteak* badira, hau da, ez diren zerbaiten itxura ematen badute, Espainiaren kasuan, demokratiz jantzita aurkezten dute beren burua. Belaunaldiz belaunaldi, sarritan familia barruan, motibo jakin batzuk iragaten dira. Europa han eta hemen sutan daukagun garai honetan, hainbat lekutako iragan ezberdinetatik agertzen ari zaizkigu txinpartak. ■